

“NATURA EZ ZAINTEAK ONDORIO LARRIAK EKAR DITZAKE GURE ONDORENGOENTZAT”



M. Kruz Intxausti | Elgoibar Ikastola | LH 2

M. Kruz Intxausti (Elgoibar ikastola) Lehen Hezkuntza 2 kategorian irabazle izan den Bostekoak taldeko arduradunaren esanetan, Kosmodisearekin asko ikasten da, ikasleak motibatuta daudelako, eta, are garrantzi handiagoa duena, besteen lanetik ere ikasten da.

Nabaritzen dute ikasleek lehiaketaren fase hau irabazteak dakarren ezagumendua?

Bai, gaia aukeratu ondoren eta sakondu ondoren emaitza positiboa izatea oso gustoko izaten da beti. Gu, hala ere saiatzen gara lehiaketa huts bat ez dela adierazten eta besteen lanetatik ere ikasi egiten dela.

Nola hartzen dute sarituak izan direla jakitea?

Oso pozik, noski, azken batez, parte hartzea dela garrantzitsua onartzen duten arren, sarituta bada hobeto.

Fase honetan finalista izateak motibatzen al ditu ikastetxeko beste talde batzuk?

Bai, beti.

Zalantzak izan zenituzten garatu beharreko gaia aukeratzeko?

Ez, saiatu ginen gai desberdinak hartzea egokiagoa eta aberatsagoa izango zela adierazten eta mailako 3 gelak bakoitzak gai desberdina aukeratu zuen.

Zer zailtasun gainditu behar izan zenituzten lana egiteko?

Denboratxo bat hartzea eta antolatzea, arlo desberdinetan eragin negatiborik ez izateko, nahiz eta jakin badakigu, kosmodisearekin asko ikasten dela, oso motibaturik daudelako haurrak.

Zein da gai honetatik ateratzen duzuen irakaspen nagusia?

Natura gu denon etxea dela eta denok zaindu behar dugula eskeintzen dizkigun onura anitzengatik. Hau ez egiteak, ondorio larriak ekar ditzakela gure ondorengoentzat.

Zer espero duzue Kosmodisea ekimenaren gaineraketik?

Lan polit bat burutu, kosmodiseak eskeintzen dituen baliabiak erabiltzen ikasi, besteen lanak baloratzen ikasi, azken jaialdian ongi pasatu eta agian, sarituak izatea.